


EDU ZELAIETA – TXABI ARNAL

BERTA BEREZI

Marrazkiak: Alexandre Fernández



erein AUSAKO

BERTA BEREZI

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurkitzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2021eko irailean

Azalaren eta barruko irudiak:

© Alexandre Fernández

Maketazioa:

Erein

© Edu Zelaieta Anta - Txabi Arnal Gil

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-730-3





L.G.: D 1128-2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

EDU ZELAIETA ANTA
TXABI ARNAL GIL

BERTA BEREZI

Ilustratzailea: Alexandre Fernández

*Nork bere burua ezagutzea da
bizitzako gauzarik zailena;
eta errazena, besteei aholku ematea*

TALES MILETOKOAK esana, duela urte parrasta handi bat

idazleak

eduzelaieta - txabiarnal



Txabik Eduk bezala eta Eduk Txabik legez idatzi nahi zutelako, istorioak kontatzeko tresnak trukatzearabaki zuten. Hala, Edu Txabiren boligrafoaz saiatu zen eta Txabik zirriborroz bete zuen Eduren koadernoak. Alferrik!

Arratsalde batean, konponbidea topatuko zutela sine-tsita, biak paseatzera irten ziren (elkarrekin, jakina!). Eta, konponbidea ez bazen ere, bai aurkitu zutela zerbait bidean: boligrafo bitxi bat. Txabik boligrafoa hartu eta Edu-ri eskaini zion. Eduk, orduan, esaldi bat idatzi eta Txabiri erakutsi zion. Ondoren, Txabik bigarrena idatzi zuen...

Geroztik, behin baino gehiagotan egin dute. Jakin dakigunez, gainera, tinta ugari isurtzeko asmoa du adis-kidetasunaren lau eskuekin hartutako boligrafo horrek.

alexandrefernández

ilustratzailea



Sabadellen jaió nintzen, Bartzelonako probintziako hiri industrial batean, 1975. urtearen hasieran.

Gogoratzen dudanaren arabera, beti marraztu izan dut. Publizitate Grafikoa ikasi nuen Escola Illa de Sabadell izeneko ikastetxean eta gero ilustrazio ziklo bat egin nuen gaur egun bizi naizen Gasteizko EASDn. Askok poztzen nau ilustratzaile eta marrazkilarik gisa lan egiteak. Gazteentzako eleberririk batzuk eta testu liburu asko ilustratu ditut. Marraztea hondarrak uzten dituen pentsatzeko modu bat dela uste dut.

BERTA BEREZI

Bi nobedade ekarri zituen lehen eskola egunak. Batetik, Garbiñe tutoreak haurdun zegoela iragarri zuen. Bestetik, haren ondoan zegoen ikaskide berria aurkeztu zuen taldearen aurrean:

—Ikusten duzuenetz, ia hiru gaude hemen —esan zuen Garbiñek—: barrenean daramadan bizitza-proiektu hau, ni eta ondoan dudan neska hau. Berta izena du, eta gurekin egongo da hemendik aurrera. Ongi etorri gure taldera, Berta!

—Eskerrik asko, Garbiñe —erantzun zuen Bertak.

—Badakit agian zaila egingo zaizula orain, bat-batean, zeure burua aurkeztea ikaskideen aurrean, baina zerbait esan nahiko zenuke beste guztiok zu ezagutzen hasteko-edo?

—Bai. Nire sinadurarena gustura azalduko nuke.

—Sinadurarena? —galdetu zuen irakasleak.

—Laburrean kontatuko dizuet —erantzun zuen ikasle berriak—: Ni jaio gabe nengoen artean. Amaren sabelean ematen nituen egunak eta gauak igerian. Halako batean, bertan luzaroan egoteaz aspertuta-edo, mundua ikusteko ordua zela erabaki nuen. Medikuek ere hala baieztatu zuten, eta jaiotza adimentsu baten aurrean zeudela esan zuten publikoki.

—Jaiotza adimentsu bat? —galdetu zuen harritua (eta haurdunago!) Garbiñek.

—Bai. Oker ez banago, egunkarietan eta telebistan eman zuten gertaera apartekoaren berri. Hainbat proba egin zizkioten amari, dena ongi zihoala konfirmatu ahal izateko. Hain zuzen ere, ekografia bat egiten ari zirela, nik identifikatu nuen norbait ari zela kanpoko mundutik nire berri jakin nahian. Beraz,




komunikazio sistema berri bat asmatu nuen. Geroago jakin nuen beste norbaitek *Morse kodea* deitu ziola.

—Morse kodea zeuk asmatu zenuen? —galdetu zuen ikasle batek txundituta.

—Bai, jakina! —erantzun zuen irmo Bertak, azalpenarekin jarraitu aurretik—. Nik kolpe leunak ematen nituen amaren sabelean. Kolpeak bi motatakoak ziren: luzeak eta laburrak, puntuak eta marrak. Egia esan, uste baino gehiago kostatu zitzaien medikuei sistema deskodetzea; azkenean, baina, lortu egin zuten. Hala, ni mundura jaiotzeko prest nengoela jakinarazi nien, 8 hilabete, 3 aste eta 6 egun igarota. Inoiz ikusi gabeko erditzerik hoberena izan omen zen. Pentsa, hura ikusita, NASAko astronautek erabaki zuten Berta izena jartzea haien kaskoetan espaziora atera baino lehen. Berta, B handirekin.

Eta halaxe inauguratu zuen Bertak ikasturtea, laster famatuko zen sinadurarekin: **Berta Berezi**.



PERRETXIKOENA

Berta eta bere lagunak kongresu jauregira joan ziren Garbiñerekin. *Onddoei esker gure basoak ondo* hitzaldia entzun behar zuten. Kapela handiko emakume batek onddoei eta perretxikoei buruz hitz egin zien. Bere azalpenek liluratuta utzi zituzten. Mundu ezezagun eta erakargarri baten atarian zeuden.

—Asteburuan perretxikotara joango al gara? —proposatu zuen Edurnek—. Hitzaldian ikasitakoa praktikan jarri nahi dut. Eta gainera, batzuk hartuz gero, meriendatxo bat egin ahal izango dugu.

—Idea bikaina, Edurne! —Polek Edurneri arrazoia ematen zion beti. Mutilak ukatu arren, besteek Pol Edurnerekin harrapatuta zegoelako uste osoa zuten—.

Hala ere –gehitu zuen Polek–, kontu handiz ibili behar-ko dugu. Kapela handiko emakumeak argi eta garbi azaldu du: perretxiko onak oso onak dira; txarrek, berriz, beste mundura bidal gaitzakete.

—Ez kezkatu! —Bertak segurtasun handiz hitza hartu eta aholku bat eskaini zien lagunei—: Asteburu honetan oso ongi ez badatorkit ere, neuk lagunduko dizuet. Mundu zoragarria da perretxikoena. Dena den, pozoitzeko arriskua saihesteko ongi jakin behar da onak eta txarrak bereizten. Ni askotan ateratzen naiz perretxikoetara izebarekin. Eta irakatsi egin dit. Dagoeneko ez dut sekula kale egiten.

Hala, abentura hartan Berta gidari onena izango zela konbentzituta, hurrengo larunbateko goizeko berderatzietan plazako kioskoren ondoan biltzea adostu zuten lagunek. Azken bolada hartako bostak ziren: Jon, Pol, Ainhoa, Edurne eta Berta; edo, herrian esaten hasi ziren bezala, Martin Txikiren eskuko bost atzamarrak.

Eta perretxikoetara joateko eguna heldu zen. Goiz eguzkitsu eta freskoa argitu zuen. Perfektua! Mendiko

botak, kirol jertsea, bokata (txikia, bazkalordurako etxean nahi zuten-eta) eta plastikozko poltsa txiki bat; horiexek osatzen zuten lau taldekideren ekipaje apala. Bosgarrena, Bertarena hain zuzen, askoz osatuagoa zen.

Zortzi minutuko atzerapenarekin agertu zen Berta hitzartutako lekuan. Hura ikusitakoan aho bete hortz geratu ziren beste laurak. Mendiko arropa jantzita zertorren, goitik behera. Oinetan zazpi legoetako bota dirdiritsuak zeramatzan. Baina besteak erabat txunditurik utzi zituztenak zumezko saskia eta labana izan ziren, batez ere, eskuila eta guzti zeukan labana hura. Ez zegoen zalantza izpirik ere: Berta perretxikoetan aditua zen. Lagunartean profesional bat zuten, Berta, perretxikoetara joateko gidaririk egokiena.

—Eta labanak zertarako du eskuila? —galdetu zion Ainhoak tresna hark erakarrita, Ainhoa ekintza-neska zen eta.

—Perretxikoen oinetako lurra kentzeko, jakina! Lurra basoaren odola da. Ama lurrak perretxikoak ematen dizkigu opari, eta guk Ama lurrari lurra itzuli behar diogu. Lurra basoan geratu behar da bizitzak

aurrera jarrai dezan –azaldu zuen Bertak seriotasun handiz.

—Aaaaa! –erantzun zuten besteek batera. Gero eta konbentzituago zeuden: Berta, gidaria ez ezik, baso zaindaririk onena ere bazen.

Goiz osoa eman zuten perretxiko bila: zelai zabalak zeharkatu zituzten, sasi arantzadunen gainetik egin zuten salto, ziraun batek sekulako sustoa eman zien, eta bokata errekatxo baten ondoan jan zuten. Eta hori guztia herritik bostehun metrora aldendu gabe!

Hala ere, eguerdirako nekatuta eta etsiak hartuta zeuden. Txoko guztiak arakatuak zituzten, baina perretxikoen arrasto txikienik ere ez. Porrota onartuta eta burua makurtuta, etxera bueltatzeko momentua heldu zitzaien.

Eta, agian, burua makurtuta zeramatelako, belardi handi eta ezezagun bat zeharkatzen ari zirela, kolore eta tamaina guztietako onddo eta perretxikoekin egin zuten topo. Urduri jarri ziren ezusteko eder haren aurrean. Malko txikiren batek ere ihes egin zien.



Plastikozko poltsak sakeletatik atera eta batzeari ekin zioten, harik eta Bertak «egon, egon, lagunok, egon!» oihu egin zien arte. «Jakin gabeen ez dugu perretxiko bakar bat ere ukituko. Eta pozoitsuak balira?».

«Pozoitsu» hitza entzun eta gainerakoek Berta inguratu zuten berehala.

—Lagunok, ez gara perretxikoen itxura ederraz fidatu behar. Denak onak eta gozoak direla dirudi, BAI-NA EZ! —Berta serio eta burutsu agertu zen—. Ikusten al duzue nabar koloreko, oin sendoko eta itxura haragitsuko onddo hori? Samurra, fina eta gozoa dela ematen badu ere, onddoetan kaltegarriena da. Zati txikiena ere jateak beste mundura eraman gaitzake. Izebak «onddo-ezpata» esaten dio hilgarria delako, eta azken hantsa eman arte erraiak ziztatzen eta zulatzen dizkizulako.

—Aaaaa, eskerrak gurekin zaudela, Berta! —erantzun zuten guztiek, eta jarraian poltsak hustu zituzten onddo-ezpataz beteta baitzeuzkaten.

—Horiek, aldiz —esan zuen Bertak, kapela gorri eta puntu zuriak zeuzkaten perretxiko batzuk seinaltuz—, horiek bai direla onak. Nahi beste har dezakezue. Merienda ederra egingo dugu horiekin.

—Eta nolatan dakizu hain ongi eta hain ziur horiek direla eraman behar ditugunak? –galdetu zion Jonek, kuadrillako mesfidatienak.

—Horrelakoetan gnomoak bizi direlako –erantzun zion Bertak—. Pozoitsuak balira, gnomoak horietan biziko lirateke? Ez, ez eta ez! Eta basoaren kontuez nork daki gnomoek baino gehiago? Inork ez! Gnomoek ez lukete inoiz etxe kutsatu bat hartuko. Inolaz ere ez!

—Baina nik ez dut gnomorik ikusi... –Jonek, mesfidantzaz berriro.

—Ez ikusteak ez du esan nahi ez dagoenik.

Bertaren erantzunak berriz ere konbentzitu zituen lagunak, eta irrika handiz kapela gorriko perretxikoak batzeari ekin zioten. Oso denbora gutxian plastikozko poltsak bete, eta pozarren etxerako bidea hartu zuten.

Goizeko ibilaldiak gose handia eman arren, eguerdi hartan ez zuten asko bazkaldu; ez, behintzat, tripa bete arte. Arratsaldeko merienda dotoreari lekutxo bat utzi nahi zioten.

Arratsaldeko bostak aldera erreka alderantz abiatu ziren. Banketea hantxe egitea adostua zuten. Adar bazuk eta egur sendo pare bat bildu ondoren, Ainhoak ekarritako pospoloekin egur metatxoari su eman zioten. Jarraian, burrunntzi moduko bat inprobisatu zuten, hau da, makila luze bana hartu, perretxiko bat puntan sartu, eta sutan erre.

Burruntzi bana baino ez zuten jan, dena den. Bigarren perretxikoa makilaren puntan ipini nahi izan zutenerako, hasi ziren minak eta komeriak. Pol berde jarri zen, Jon zuri, eta besteek ortzadarraren kolore guztiak hartu zituzten. Norbait pasatu zen errekatxo ondotik eta, eszena hura ikusita, anbulantziari deitzea erabaki zuen. Eskerrak!

Zorionez, perretxiko bakar bana zuten tripan, eta urdail-garbiketa egitea nahikoa izan zen guztiak sendatzeko. Iluntzean, etxera bidali zituzten.

Astelehen goizean, ikastolako patioan elkartu ziren bostak. Jonek esan zien, jandako perretxikoen ondorioz, amets egin zuela herensuge baten ahoan sartuta



zihoala bidaiatzen. Bertak, berriz, bere hanka-sartzea aitortu beharrean, Euskal Herriko gnomoen desagertuenaren arrazoia azaldu zien, ohikoa zuen jakintsu-tonuarekin:

—Pentsatzen aritu naiz eta hona hemen nire hipotesia: kapela handiko emakume hark hitzaldian azaldu bezala, ingurune pozoitsuetan ez dago bizitzerik. Eta gnomoak, perretxiko pozoitsuetan bizi zirelako, azkenean desagertu ziren Euskal Herrian. Betiko.

Berta Berezi: Beti eta Betiko.